



Astekaria



elgoi



**M A P F R E**

**ASEGURU ETXEA**

San Frantzisko 40 - ☎ 74 05 82 - 20870 ELGOIBAR

elgoi**BARREN**  
Nafarroa enparantza 2  
☎ 74 41 12

**ARGITARATZAILEA:**

Elgoibarko Izarra.

**LAGUNTZAILEA:**

Elgoibarko Udala.

**ZUZENDARIA:**

Ainhoa Lodoso.

**ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:**

Andres Alberdi.

**KAZETARIAK:**

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

**PUBLIZITATEA:**

Myriam Aldazabal.

**MAKETATZAILEA:**

Maite Rementeria.

**ADMINISTRAZIOA:**

Amaia Martin,  
M. Angeles Ortuoste.

**KOLABORATZAILEAK:**

Irati Agirreazaldegia, Xabier Ansola, Nekane Aranburu, Pello Arrieta, Ina Garagarza, Ane Goikoetxea, Amaia Gorostiza, Maite Iriondo, Edu Iriondo, Alberto Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León, Juan Mari Mendizabal, Milagros Oiarzabal, Benantzio Otaegi, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta, Deñe Zabaló, Lucia Zubiaurre.

**BANAKETA ARDURADUNA:**

Imanol Larrañaga

**INPRIMATEGIA:**

Gertu koop. E.  
(Zubillaga Oñati)

**TIRADA:** 3.600 ale

**LEGE GORDAILUA:** SS-  
1.038/92

**ISSN:** 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



• kutxa fundazioa  
• fundación kutxa

# ZENBAT BURU



## HAINBAT ABURU

### Zorionekoa zu...

**Z**orionekoa zu, hau irakurtzen hasi zaren hori, artikulu hau irakurri ahal izateak pribilejiatu bihurtzen zaituelako. Ez artikuluagatik beragatik —erditzea zenbat kostatu zaidan kontutan izanda, euli-kaka ez dena— irakurri ahal izateagatik baizik. Agian ez duzu inoiz pentsatu irakurtzen dakien eta biharko janaz edo aterpeaz ardura handirik ez daukan XX. mendeko biziduna izate hutsak Humanitatearen historiako % 0,00000001eko pribilejiatuen taldean sartzen zaituela. Dazkazu urteekin bizirik egoteak berak (20tik gora edukitzea nahikoa da) salbuespen bihurtzen zaitu azken 8.000 urteotan. Horri gehitzen badiogu honelako artikuluak irakurtzen alferrik galtzeko denbora daukatenetakoa zarela, zer esango dizut, ba: Yave-k aukeratutako hogeita hamarren taldekoa zarela (300.000 ote ziren?).

Izan ere, kontutan hartzen badugu, gure existentziaren hasieran, edozein tokitan amaitu litezkeen (latexezko zorrotxo batean, esate baterako) hazitxo ziztrinak izan garela, erraza da eduki dugun zorte itzelaz konturatzea, non eta Euskal Herrian agertu gara-eta. Baina, Historian zehar jaiotzeko genituen aukerak sakon aztertuz gero, ileak lazteko moduko aurkikuntzak egin ditzakegu: probabilitate kalkulo kas-kar bat baino ez dugu egin behar, ikusteko XX. mendeko euskaldunak barik, Austrolophitecus bat izan gintzekeela (inor mintzeko asmorik gabe eta adibide soil bat ipintzearen esanda); pentsatu: telebistaren eskuko kontrola ere ez genuen ezagutuko.

Gogoeta hau (edo antzeko bat, nork bere zoroak bizi ditu-eta) egin eta mundu honetan

batere zorterik ez daukagula-eta, mar-mar eta kexuka dabilzan horietakoak bagara, ez daukagu barkamenik. Ni neu, behintzat, honetaz konturatu nintzenetik ez naiz gasolinaren prezioaz kexatzen. Gauza apurra da, baina era positiboan pentsatzen hastea da kontua. Izan ere, era positiboan pentsatzeak aldaketa itzelak ekar omen ditzake gure bizitzan. R. Bart-ek esaten duenez, “Mende honetako aurkikuntzarik handiena zera da, gure pentsaerak bizitza alda dezakeela”. Eta hala dirudi, zeren azken urteotan, mordo batira pentsaera positibo honek giza harremanetan eta norberaren osasun fisikoan ere eduki ditzakeen eragin positiboak buruz egiten ari diren ikerketak.

Zer da, baina, era positiboan pentsatzea? Horretaz zerbait jakin nahi baduzu, han-hemen ugaldutik ikastaroetara apunta zaitzake; daukaten arazo bakarra poltsikorako negatiboak izatea da. Bigarren aukera R. Bart delako baten liburuak erostea da; lortuko duzun gauza bakarra liburu-saltzaileari burutik eragitea izango da, izenetarako oso txarra naiz eta. Besterik ezean, hurrengo artikulu batean agertuko diren etxetik ibiltzeko aholkuekin konformatu behar duzu.

Esango du, bai, negatiboren batek: “Zeinek esan jok, ba, hau egin ostean, hurrengo artikulurik egongo dala?”. “Amigo! —esango niok nik —. Zenbat bizilagun daude Elgoibarren? Ba... baietz 11.500 zenbaki barru, Barren-ekoek nire atera jo 11 puntuko Times letra tipoan egindako 30 lerro luzeko artikulu baten eske!”. Horra hor pentsaera positiboa.

**Edu Iriondo**

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*





## KEXAK

- Honako hau kexa baino salaketa bat da. Gazte bat etorri zaigu BARREnera, San Lorentzo elkarteok plater tiraketa ostean, bertan apurtutako platerak eta bestelako zakarrak San Lorentzo errekarara bota zituztela salatzen. Bide batez, errekarara botatakoa kontenedoreetara jasotzeko eskatu nahi die.

- Bigarrena ere ingurugiroari lotua dago. Igandean Madarixa inguruan ibili zen elgoibartar bat etorri zaigu erredakziora. Madarixan jende asko zebilela ikusi zuen, elurretara joandako jendea, itxuraz. Bere kexa han egon zirenei helarazi nahi die, Madarixa ingurua plastikoz eta zakarrez betea geratu baitzen.



## TXALOK

Emakume batek telefonoz deitu digu Plaza Txikiko komunak benetan apropos daudela esateko. Komunak txukun eta garbi omen daude inguruan ibiltzen diren haur eta zaharren mesedetan.

# ESKUTITZAK

## Ezer gertatu baino lehen...

**H**obe izango litzateke gauzak diren bezala uztea. Argituko dugu zertaz ari garen: Urasandi erdian dagoen parkeko jostailuen egoerari buruz ari gara. Orain dela hilebete dexente da egoera tamalgarrin daudela: pasabide bateko barandila apurtuta, txirristada batera igotzeko eskailetarxo bat falta da, bi kate erabiliz igotzen den jostailu bat katerik gabe, ohol bat falta zaio etab.

Egoera hau ikusirik, aitona bat etxetik ekarritako mailuarekin kanpoan zeuden iltzeak sar-tzen ibili zen duela denbora dexente. Eta hau dena, parkeko mantenua eraman behar zutenek ezer egin gabe. Udalari eskatzen diogu lehen bait lehen egoera hau konpontzeko. Parkean bertan dagoen eskolako umeez gain, beste ume askok ere erabiltzen dutelako. Une egokia orain da, udaberria etorri baino lehen.

U.G.B.

## Alkoholaren kanpaina

**H**auteskunde antza dago. Botoa emateko egun batzuk falta direnean eta Udalak Zoco patxaranaren promozioa egin zuenetik bi hilabete eskas pasa direnean, berriz ere honez gero hainbat aldiz porrot egin duen "alkoholaren kontsumorako prebentzio planarekin" datozkigu. Orain, nola ez, gazteok

ditugun nahiak, beharrak eta kezkek eta bla, bla, bla... ezagutu nahi dituztela esango digute. Gaur esan eta bihar haizeak eraman.

Bederatzi hilabete korapilotsu pasa dira, gure arazo eta pozei buruz eztabaidatu zein mota guztietako ekintzak burutu ahal izateko, gazteontzako bilera leku baten proiektu serio bat aurkeztu genuenetik. Heri honetako kolektibo, elkarte eta hiritar asko proiektu honen alde dago. Eta hauen artean daude drogomenpekotasunen prebentziorako Errotaxo taldea, bai eta Elgoibarko Osasun Zentruko gizarte langilea ere, bere hitzetan "osasuna bultzatzeko ikuspegi batetik egokia delako".

Zer egin du Udalak 9 hilabete hauetan? Ezertxo ere ez. Proiektu hau gazteen etorkizunari eta prebentzioari begira positiboa al den ere ez digu erantzun. Orain zenbait botu irabazteko, aurpegia garbitzeko kanpaina hau jarri dute martxan. Iturri fidagarrien adierazpenek zera ziurtatzen dute: gezurra dela eskualdeko teknikarien bilera egon denik. Ateak itxi, ekintza kulturalak burutzea eragotzi etab. egiten diguten politikari horien plana da. Inor oroitzen al da aurreko planaz eta bere emaitzez? Kontrola eta errepresioaren gorakada eta besterik ez... inolako benetako alternatibarik gabe. Ez zaitzatela engainatu, nahiago dute gu kalean egotea, etorkizunik gabe, banatuta, odolgabetuak, drogak kontsumitzea. Izan ere beraientzat benetako arazoa gazteok elkartzea eta gure arazoak konpontzen saiatzea da. Urteek horrela dela erakutsi digute.

Gazte Asanblada

# HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK







**J**ose Maria Balenzategik lagatako erretratu hau 1933koa da. Gernikako Juntetxeko arbolaren aurrean dauden sei gizonetako hauek Elgoibarko herriko agintariak ziren. Zer dela-eta joan ziren Gernikara ez dakigu, Udaltxeko urte hartako aktetan ez baitago ezer jasota. Itxuraz, ohitura zegoen sasoi hartan Gernikara joatekoa, arbolaren aurrean erretratua ateratzeko. Agian hauxe izan zen seikotea hara joatera bultzatu zuen arrazoia.

Sasoi hartan herrian agintzen zutenak hauexek ziren: Ezkerretik hasita, **Ramon Balenzategi Ansola** alkatea (†), **Juan Ansola Txurruka** alkateordea (†), **Migel Arriola Etxeberría** zinegotzi sindikoa (†), **Francisco Iriondo Aranberri** zinegotzia (†), **Vicente Arozena Unamunzaga** zinegotzia (†) eta **Antonio Beciña Ibarrolaburu** idazkaria (†).

Datu modura, jakin badakigu sei agintariok Errepublikako hauteskundeetan hautatu zituztela 1931ko apirilaren 12an.



ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartea

## BAZKIDEEN URTEKO BATZAR OROKORRA



### GAIEN ORDENA:

- 1.- Lehendakariaren agurra.
- 2.- 95. urteko memoriaren azalpena.
- 3.- 96. urterako asmoak eta aurrekontua.
- 4.- Zuzendaritza Batzorde berriaren aurkezpena eta onarpena.
- 5.- Galdera - erantzunak.

### EGUNA:

Martxoaren 7a, osteguna

### TOKIA:


Kultur Etxean

### ORDUA:

Arratsaldeko 7ak

# Urte bisiestoaren inguruko sineskeriak

Aintzinako superstizioen arabera, urte bisiestoak zoritxarrez beteta etortzen dira. Aurtengo hau, 1996a, urte bisiestoa da eta hasiak dira, dagoeneko, han-hemenka era guztietako gatazka eta arazoak sortuko direlako sineskeriak hedatzen.



**Zergatik izaten da, ordea, lau urtean behin bisiestoa?**

Dirudienez, Erroma klasikoan du jatorria. Garai hartan urteko egutegiak 365 egun izaten zituen baina astronomoak konturatu ziren gizakiak ezarritako urteak eguzkiaren arabekoak baino sei ordu gutxiago zituela. Akatsa zuzentzeko, Erromako errepublikako errito eta zeremonia erlijiosoetako apaiz nagusiek beraien kasa txukuntzen zuten egutegia. Horrela izan zen Julio César-ek Alexandriako astronomoa zen Sosígenesi deitu eta honek urteak 365 egun eta laurden izan behar zituela esan zuen arte. Urtea 30 eta 31 eguneko 12 hilabetetan banatu zuen. Lau urtean behin otsailak 29 egun izango zituela zehaztu zuen, gaintzeko urteetan baino bat gehiago. Urte bisiestoa jaio zen.

**“Bisextilis”**

Horrela egin izan da ordutik. 366 egun zituen urteari “bisextilis” izena jarri zion Sosígenes-ek, martxoan hasi baino lehenagoko seigarren eguna

errepikatzen zelako, otsailaren 24a hain zuzen. Martxoan izan ohi zen hildakoen hilabetea. Ikerlarien iritziz, erabaki honen ondorioz sortu zen urte bisiestoen inguruko kondaira beltza.

Urte bisiestoak benetan bitxiak dira eta horren inguruan herritarren irudimenak sineskeriak sortzen ditu. Beste egutegi batzuk jarraitzen dituzten kulturetan ere sineskeriak ugariak dira zuzenketak egin beharra izaten diren daten inguruan.

Esaterako, aztekek 15 egunetan luzatzen zuten urtea eta hamabostaldi hori sineskeria txarrez beteta egoten zen. Herri honen ustez, bi aste horietan Jainkoek gizadiaren jarraipena erabakitzen zuten.

Txinarrrek hilabete bisiestoak dituzte, oso gutxitan izaten direnak baina zoritxarrez beteta aurrikusten direnak. Hilabete bisiestoak urteko zortzigarren hilabetearekin bat egiten badu, seinalea oso txarra izaten omen da. Mao Tse Tung diktadore komunista 1976ko hilabete bisiestoan hil zen eta herritarrak



bel-  
dur ziren bere ondoren-  
goa ere, Deng Xiao Ping  
ez ote zen urte bereko  
hurrengo hilabete bisies-  
toan hilko, irailaren 25a  
eta urriaren 23aren  
bitartean.

Ekialdean ere bada  
antzekorik. Eskozian,  
adibidez, XIII. mendeko  
neskazaharrek urte  
bisiestoetan aukeratu  
behar zuten senargaiak.  
Gizonek ezetz esanez  
gero, isuna ordaindu  
behar izaten zuten.

#### Telefonoa eta autoa


Egutegi Zaragoza-  
noak, aldiz, zenbait  
borraska aurrikusten  
dituen arren, ez du uhol-  
de ez eta lehorte handi-  
rik aurrikusten  
1996rako.

Nostradamus eza-  
gunak ere ez zuen gerta-

era  
bereziegirik aurrikusi  
1996rako. Bere kalku-  
luen arabera, joan den  
hamarkadako erdialdera  
errusiarrek eta arabia-  
rrek Europa inbaditu  
behar zuten eta Espai-  
niako Erregearen men-  
peko ejerzitoek Pirinioe-  
tan lortuko zuten garai-  
pena eta Europaren  
askapena. Orain arte  
profezia hau ez da bete.

Urte bisiestoetan  
telefonoa, laser izpia,  
linotipia eta autoa asma-  
tu ziren eta , besteak  
beste, urte bisiestoetan  
ospatzen dira Joko Olin-  
pikoak aurten Atlantan  
izango direnak.

## Otsailaren 29an jaioetakoak



### Ion Imanol Rementeria

Ion 1964ko otsailaren 29an jaio zen. 32 urte ditu berez, baina benetako datak batzen baditugu, 8 baino ez dituela konturatu gara. 203 zentimetro neurtzen dituen elgoi-bartar hau orain urte

batzuk saskibaloian jokatzera joan zen Madrilera eta gaur egun informatika enpresa bateko itzultzailea da Madrilen bertan. Bera jaio zeneko eguna lau urtean behin bakarrik izaten denez, gainontzeko urteetan otsailaren 28an ospatu behar izaten du, "martxoaren leian baino nahixoa det, azken finean ni otsailean jaio ni-tzan eta". Halere, aurten, Joko Olinpikoak izaten diren guztietan bezela, eta urteak 366 egun izaten dituen guztietan bezala, espezial ospatuko du bere urteguna, "ez dakit zela baina ahal doten hobetuen!". Zorionak, Ion!



### Jesus Fernandez

1964ko otsailaren 29an jaio ziren, baita ere, Jesus eta Carlos Fernandez anaia bikiak. Jesusek esan digunez, "bisiestoa tokatzen den urteetan bakarrik bizi izaten dut nere urteguna. Gainontzeko urteetan,

arraro samar sentitzen naiz, otsailaren 28an jaio gabe nengoen eta martxoaren leian ospatzea ere...". Umetan, data berezi horretan jaio izana bere onerako erabiltzen zuen, "lagunak gonbidatzeko esaten zidatenean, nire urteguna ez zela esaten nien. Etxean, berriz, oparia jasotzeko beti nengoen prest". Anekdotarik ere tokatu izan zaio parean, Aurten esaterako, Estatu mailan sortu den elkarte berezi bateko telefono zenbakia eman diote, "otsailaren 29an jaioetako pertsonak osatzen dute elkarte eta lehenbizi afari bat egin nahi dute". Berezia sentitu zen Jesus atzo esnatzean. Zorionak zuri ere, Jesus!

## Nork irabaziko ditu hauteskundeak?



### ARANTXA AGINAKO

30 urte, langabetua

Nere uste,z PSOEek, gutxi-gatik baina PSOEek. Dana dala, batek edo bestiak irabazi, gauzak ez dia aldatuko eta aldatzekotan, txarrera. Ez daukat esperantza handirik.



### MARIBEL ONDARRE

34 urte, administraria

Idearik ez dakat, ez det segitzen. Egixa da PPK igo- era handia eukiko dula baina zeinek irabazi... Hori ez dakitx. PPK irabaziz gero leheno esaten gendun txarrerako zala, oin ez dakitx.



### INAKI SOLOZABAL

37 urte, mekanikoa

Estatuan posibilidade gehixo dao PPK irabazteko. Gauzak ez dia aldatuko nahiz eta kanpainen esan. Gauzak aldatzekotan hemen behintzat txarrera izango dala uste dot.



### CRISTOBAL LENDINEZ

75 urte, jubilatua

Sozialistek. Ez du PPK irabaziko, prentsa eta denak PPrende alde daude. PSOE da langileon alde zerbait egin duen bakarra, gazteek ez dakite zer den 40 urtez frankismoan bizi izatea.



### ALAZNE GURRUTXAGA

24 urte, adiministraria

Ondiokan sozialistek irabaziko dabe nahiz eta jendiak esan PPK irabaziko dabala. Batak edo bestiak irabazi, asko saiatu bihar-ko dia gauzak aldatzia nahi badabe.



### FELIX M. GUMEZ

38 urte, BADESAko langilea

Politikari ez diot kasurik egiten. Ez dakit botatu behar dudane. Estatuan litekeena da PPK irabaztea baina gauzek onera ez dute egingo; aldatzekotan, txarrera.

*okindegia eta gozotegia*

San Frantzisko, 4  
Tel. 74 07 35  
**ELGOIBAR**

**ULATZ, S.I.**  
SUKALDE eta  
KOMUNERAKO  
ALTZARIAK

**%**

**OFIZINAK ETA ERAKUSKETA:**  
Pedro M. Urruzuno, 8 - Tel-Fax 74 38 44





## 1.105 milioitako aurrekontua du aurten Udalak



**J**oan den ostiralean izan zen ple-noan, 1996 urterako aurrekontua onartu zen. Herri Batasunak aurrekontu osoaren aurkako emendakina aurkeztu zuen eta IU bai eta PPK ere aurka botatu zuten. Halere, PNV, EA eta PSEren botuei esker, mila ehin eta bost milioi pta.ko aurrekontua onartu zen, iaz baino 3 milioi gu-txiago. Dena den, 1995eko ejer-zizioa 1.159.452.367 pta.koa izan zen. hau da, urte amaieran uste baino gehiago gastatu zuen Udalak, 59 milioi gehiago, alegia. Aurten ia 54 milioi gutxiago gastatzea espero du.

HBk osozko emendakina aurkeztu zuen aurrekontuen aurrean. Alderdi honen iritziz, "Udal Fondoa gehitu egin beharko litzateke %10a beharrean %15a jasoz. Honela, herriak 156 milioi gehiago jasoko litzuzke. Hau egin ezean, Udalaren presio fiskala areagotu egiten da". Emendakina atzera bota zen PNV, PSE eta EAren botuekin. Beste

emendakin partzialak ere aurkeztu zituen HBk. Esate baterako, Pilar ikastetxeari ematen zaion dirulaguntza kendu eta Herri Eskola eta Ikastolaren artean bana-tzea eskatu zuen, "Pilar ikastetxea pribatua baita eta kutsu erlijiosoa baitu". Ana Santolayak esan zuenez, "Pilarri ikasleen araberrako dirulaguntza ematen zaio mantenurako, eurak ere herritarrak baitira eta zergak ordaintzen baitituzte". Langabezirako partida handitzea eskatzen zuten puntuan PP eta IU HBrekin bat etorri ziren. Azkenik, HBk ingurugiro ikerketa baten beharra azaldu zuen errekarren mozketa-kan gaian. Loiolak esan zuenez, "Ingurugiro sailburuordetzan aipatu azterketa beharrezkoa den ala ez galdetu dugu dagoeneko". HBren emendakin guztiak atzera bota ziren. EAren hitzetan, "emendakin horiek ez dira aurrekontuen atalean eztabaidatzeko, aurrekontuak atzera botatzeko, beste batzuek proposatu behar dira eta".

### *Beste gai batzuk*

■ Udaletxeko **IDAZKARI ETA ARTEKARI POSTUETARAKO LEHIAKETA** egitea onartu zen. Errolda egile eta arduradunak kontratatzeko oinarriak ere onartu ziren.

■ Lanpostuen zerrenda onartzeko orduan **EZTABAIDA** sortu zen. HBk, lan kontratazio bat salatu zuen, "lehiaketa eta frogarik gabe sartu zen langile hori Udaletxean ordezkapen bat egiteko eta hor jarraitzen du. Guk ikerketa bat eskatzen dugu, eta erantzukizuna". Loiolak hartu zuen hitza eta honek adierazi zuenez, "kasu honen aurrean Diputazioak zer aholkatzen digun zain gaude. Dena dela, legegaldi honetan gauzak oso zorrotz egiten ari gara".

■ HBk gurasoek beren **SEME-ALABAK D EREDUAN MATRIKULATZEKO** Udalak bando antzeko bat argitaratzea proposatu zuen. Honen aurrean, Gotzon Arrieta Euskara Batzordeko lehendakariak esan zuenez, "Udalak eta Elgoibarko Izarrak hitzarmen bat sinatu zuten eta guraso guztiei bidaltzen zaie etxera D ereduan matrikula daitezela esanez. Aurten A ereduan %0,7a baino ez da matrikulatu eta hauek Herri Eskolako 8. mailakoa dira". HBren eskakizuna ez zen onartu.



HEZETASUNARI  
ITOGINEI  
FILTRAZIOEI

**EZ**

**GORENGO  
TEKNOLOGIA**

ESTALKIAK, TERRAZAK, HODIAK, SOTOAK,  
---Aurrekontuak konpromezurik  
gabe---

glas control s.l.  
Ubitarte 7 - ELGOIBAR  
Tel.: 74 30 94 - 74 35 46

- Kontabilitate

- Lan

- Fiskal



**URKIDI**

**AHOLKULARITZA**

**ASEGUROAK**

Kalamua 12  
ELGOIBAR  
Tel-Fax:  
74 18 91



# 96ko AURREKONTUAK

## SARRERAK

Zerga zuzenak .....	208.946.193
Zeharkako zergak .....	20.038.389
Tasak eta beste sarrera batzuk.....	200.879.400
Transferentzia arruntak.....	590.950.000
Ondare sarrerak.....	582.200
Kapitalaren transferentzia.....	84.103.818

**GUZTIRA.....** (IAZ 1.159.452.367) **1.105.500.000**


## GASTUAK

Pertsonal gastuak.....	290.932.152
Ondasunen erosketa eta zerbitzuak...	176.552.384
Interesak.....	127.995.252
Transferentzia arruntak .....	336.401.669
Inbertsio errealak.....	98.056.280
Kapital transferentziak.....	3.132.000
Finantza pasiboen aldaketa .....	72.430.263

**GUZTIRA .....** (IAZ 1.159.452.367) **1.105.500.000**

## GASTUEN AURREKONTUA SAILEZ SAIL


### ● BARNE SAILA



■ Goi karguen ordainsariak .....	20.350.950
■ Karguen dieta, garraio eta protokolo gastuak.....	1.441.760
■ Administrarien ordainsariak .....	36.924.117
■ Bestelako gastuak .....	22.867.484
■ Hiritarren segurtasuna.....	67.188.169

**GUZTIRA .....**(Iaz 119.220.209) **148.772.480**


### ● EUSKARA



■ Pertsonal gastuak.....	4.519.991
■ DEBABE euskaltegia.....	8.801.626
■ Elkarteei laguntzak .....	14.272.725
■ Bulego gastuak, argitarapenak, garraioa, etab. ....	1.527.050

**GUZTIRA .....**(Iaz 25.719.044) **29.121.392**


### ● KULTURA ● GAZTERIA ● KIROLA ● HEZKUNTZA



■ Pertsonal gastuak	
Hezkuntza.....	3.877.097
Kultura .....	17.347.811
■ Ikastetxeak .....	29.235.000
■ Altzariak, publizitatea...(bestelako gastuak) .....	12.788.410
■ Herriko jaiak.....	29.170.000
■ Pelikulen alogera eta garraioa .....	8.635.920
■ Antzerki taldeen gastuak .....	3.500.000
■ Musika eta Dantza Fundazioa .....	39.181.185
■ Haur Eskola .....	6.500.000
■ Zinea.....	1.630.475
■ Auzoetako jaiak .....	2.700.000
■ Kultur elkarteei dirulaguntza .....	4.890.000
■ Liburutegiko liburuen erosketa .....	2.000.000
■ Kirol Patronatua.....	37.498.400

**GUZTIRA.....**(Iaz 201.504.207) **198.952.298**

## ● HAZIENDA ● FINANTZAK ● EKONOMIA




**% 23,5**

■ Pertsonal gastuak.....	41.290.452
■ Interesak.....	1.741.808
■ Maileguen interesak .....	126.253.444
■ Zorraren amortizazioa .....	2.967.941
■ DEBEGESARi transferentziak .....	11.254.991
■ Maileguen amortizazioa.....	69.462.322
■ Bulegoko eta bestelako gastuak.....	10.861.903

**GUZTIRA** .....(laz 257.016.698) **263.832.861**

## ● GIZARTE PRESTAKUNTZA ● ONGIZATEA ● OSASUNA ● AZOKA




**% 18,5**

■ Ongizatea eta osasuna	
Pertsonal gastuak.....	20.091.543
San Lazaro egoitza.....	28.519.456
Etxez-etxeko laguntza .....	14.500.000
Ikasbat .....	3.313.257
Familiei larrialdietako laguntza .....	8.350.000
Elkarteei laguntza .....	8.350.000
Bestelako gastuak .....	2.292.961
■ Babes zibila .....	3.389.000
■ Pentsioak.....	5.670.000
■ Enplegu sustapena.....	6.392.098
■ Gizabanakoei laguntzak .....	850.000
■ Elkarteei laguntzak .....	3.905.000
■ Zaharren Biltokia .....	5.330.000
■ Pintadak.....	6.500.000
■ Mankomunitatea .....	80.963.260
■ Hilerria .....	600.000
■ Kontsumitzaileen bulegoa .....	1.800.000
■ Merkatu Plaza.....	7.781.880

**GUZTIRA** .....(laz 238.356.719) **202.398.455**

## ● HIRIGINTZA ● URA ● KALEAK ● NEKAZAL LURRAK



**% 24**

■ Pertsonal gastuak.....	57.334.972
■ Lurren erosketa .....	11.900.000
■ Zerbitzuak, konponketak, bestelakoak .....	10.085.082
■ Ur saneamendua .....	22.762.553
■ Patzuergoa .....	52.231.294
■ San Pedroko etxeetara ura eramatea .....	4.000.000
■ Kaleen konponketa.....	7.200.000
■ Estolderiaren konponketa .....	3.750.000
■ Argien konponketa.....	3.500.000
■ Argi-indarraren kontsumoa .....	11.750.000
■ Tresnak eta erremintak.....	7.650.000
■ Santa Klarako obrak .....	27.805.869
■ Eliz dorrearen konponketa .....	2.544.000
■ San Roke - Mintxeta bidea .....	676.744
■ Mintxetako zirkuitua.....	500.000
■ Bestelako gastuak .....	3.100.000
■ Nekazal lurretan egin beharreko lanak .....	32.000.000
■ DEBEMEN.....	3.132.000
■ Parke eta lorategiak.....	500.000

**GUZTIRA** .....(laz 317.635.990) **262.422.514**

Ruben Arozena:

## “Artearen magia buruan dago”

Valentzian bizi da Ruben Arozena. Aspalditik geunden berarekin hizketalditxo bat izan nahirik eta, azkenean, elurrei esker izan genuen aukera. Elgoibarrera bisitan etorria zen eta Valentziara bueltatu ezinik pare bat egun luzatu behar izan zuen bere egonaldia.

Gure aukera zen eta aprobetxatu egin genuen. Arte Ederrak ikasi zituen eta gaur egun, besteak beste, fakultateko irakaslea da, tesia egiten ari da, liburuak ilustratzen ditu, komikiak argitaratzen eta abar. 30 urteko elgoibartar honek, ahots goxoz kontatu dizkigu bere bizipenak.

- Umetan erabaki zenuen artista izan nahi zenuela.

- Bai, argi euki dut beti arte ederrak egin eta hortik bideratu nahi nuela etorkizuna: pintura, eskultura, argazkia...

- Halere, zure hastape-nak komikigintzan izan ziren.

- Bai. Institutuan nengoela, Andres Alberdiren bitartez Ipurbeltz aldizkarian komikiak egiteko aukera izan nuen. Hor hasi eta bertan jarraitzen dut oraindik ere.

- Tesia egiten ari zara.


- Bai, Eusko Jaurlaritzak beka bat eman zidan eta hortan nabil azken hiru urteetan. Tesia denbora eta imajinaren arteko erlazioari buruzkoa da, imajin estatiko batek zein bide erabiltzen dituen denbora adierazteko. Orain Parise-ra noa tesiari buruzko azterketa batzuk egiteko.

- Gaur egun ordenagailuak asko sartzen ari dira artean.

- Bai, ni neu ere nahi-ko multimedia naiz.

- Eta ez al da nolabait prostituitzea?

- Egia da arteak aura antzeko bat duela, magia, eta ordenadoreak sartzen



### “Batuetan inspirazioa probokatu egin behar da”

direnean nolabait puskatu egin daitekeela. Asuntoa, norberak makina dominatzea da. Beti egongo dira zenbait gauza, eskuz bakarrik egin daitezkeenak.

- Orduan disfrutatzen duzu gehien?

- Bai, jolas bat da. Neri gehien gustatzen zaidana materiale ezberdinak hartu eta horiek manipulatzea da, pintzelak, margoak eta abarrekin zikitzea.

- Magia aipatu duzu. Magia non dago?

- Buruan. Eskuetara burutik iristen da agindua, baina magia buruan dago.

- Zein da artistaren inspirazioa?

- Edozein momentu, toki eta gauzatan egon daiteke. Boligrafo bat ia beti daramat gainean, ideien bat bururatzen bazait, orri bat hartu eta bertan idazteko. Marratzu ezin badut, idatzi egiten dut, gero, hitzetan gauzatu dudana ideia hori marrazki batean isladatzeko. Idatziz betetako karpeta bat daukat, ins-

piraziorik ez daukadanean, karpeta begiratu eta inspirazioa probokatzeko.

- Italian argitaratu berri duzu zerbait.

- Bai, emakume bengaradoren istorioa da. Bar-tzelonako Komikiaren Saloian Antonio Segura gidoigilea ezagutu nuen. Editore bati aurkeztu genion gure ideia, honek onartu eta aurrera atera zen. Antoniok gidoia idatzi du eta nik marrazkiak.

- Artistak beti bilatzen al du fama?

- Ez dakit zer esan, Andy Warhol-ek esan zuen bezala, “mundu guztiak merezi du gutxienez 5 minutuko fama”.

- Orijinala izatea posible al da?

- Egia da inoren lana ez dela erabat purua, beti dituzu beste artista batzuen eraginak. Horrek ez du esan nahi zure estiloa sortzea ezinezkoa denik.

- Valentzian zer moduz?

- Momentuz ondo baina neretzat ideala izango litzateke bi edo hiru tokitan bizitzea. Denbora bat toki batean egon eta bertako berri izan, bertako ohiturak ikusi eta ikasi, eta gero beste leku batean gauza bera egin...



# BASERRIRA

BASERRIARI BURUZKO 22. GEHIGARRIA

FERISALTSAN

## Elurraren osteko feria eguzkitsua izan zen

**E**lurra ona omen da mamorroak hiltzeko. Otsailean oraindik ere negua denez, sasoi horretan elurra egitea ere normala da. Edo izan da, behintzat. Egia da, era berean, aspaldian negu hotz eta umelak baino, epel eta lehorrak bizi ditugula Euskal Herrian. Behin edo behin norbaitek Euskadi Tropikalari buruz hitzeggin zuen. Gauza da, batean eta bestean, otsailean San Juan lorea ikusten hasia zela. Eta orain bi aste bizi izan genituen elurteek horiei bai eta beste

landareei ere, kalterik egingo zien seguruen. Gauzak datozen bezala hartu behar, halere. Gu otsaileko ferian izan ginen fin-fin, hiler bezala. Asteburuan eguzkia atera zen, eguraldi aldetik behintzat ezin kexatu, nahiz eta baserri batek baino gehiagok inguruak elurrez beteta izango zituen oraindik ere. Plaza txikian jendea ibili zen eta gure artera garaian garaiko landare eta fruituak ekarri nahian, argazkian ikus daitekeen postua atera genuen.



**AZKUE**  
*Pentsuak*  
Antonio Ansola Arrieta

**GENSA**  
*AM*

**Etxean egindako pentsuak**

Ubitarte, 1 (Elgoibar)  
Tel. 74 07 88 / 74 02 89

# Salduko al zenituzke produktuk baserrian bertan?

## Baserriko produktuak

Gipuzkoako Mendi Nekazaritza Elkarteak, Foru Aldundiko Nekazaritza sailaren laguntzarekin, baserriko produktuen salmenta zuzenerako urrats ezberdinak eman ditu. Programa berri honen helburua gure baserrietan ekoizten eta eraldatzen diren gazta, ezti, barazki eta abarren salmenta erraztea da, hau da, baserrietik bertatik beraien produktua saltzea.

Helburu hau lortzeko, Gipuzkoan elkarte bat sortu da, **BASERRIKO PRODUKTUAK**, eta lehenagotik Ipar Euskal Herrian zegoen IDOKI elkartearekin elkarlanean burutu da. Gipuzkoako errepideetan, seinalizazio berezi bat jarriko da (Deba Beheko bailaran astelehean jarriko dira) eta Iparraldekoekin batera publikazio berezi bat argitaratu da eskaintza honen berri emanez.

Ekimen honekin ez da izendapen edo marka berri bat sortu nahi, lehenagotik izendaturik baitaude (labela, jatorrizko izendapena...), komertzializaziorako bide berri bat zabaldu baizik.

Elkarte honetan parte hartzeko jatorriaz gain kalitatea zainduko da, hau baita elkarte ekoizle guztien ezaugarri garrantzitsuena.

Bukatzeko, eta Elgoibarko zinegotzi naizen aldetik esan beharra dago gure herria dela Gipuzkoako bazkide gehien duen herria hiru baserriarekin: Mausitxa baserria ardi gaztarekin, Txillarre baserria barazki ekologikoekin eta Zeleta baserria "Euskal Baserri"ko barazkiekin.



**INAKI ONEDERRA**  
Elgoibarko baserriarren zinegotzia  
DEBEMEN elkarteko partaidea



**Sabin Sorazu, 54 urte**  
**Murgil baserria (Azpeitia)**

Ez det ezer entzun, berri xamarra izango da hori. Ona izango litzakela iruditzen zait, ondo ikusten det. Kamino ona badau, kaletarra baserriraino jun eta prezixo razonable baten erosi dezake.

**Mateo Orbea, 72 urte**  
**Amuskategi baserria (San Lorentzo)**

Periodikua sarri etortzen da gurera baina ez dot holakorik irakurri. Guk baserriko kontuan gutxi dakau, e-txerako bakarrik produzitzen dou baina baserri txarrantzat gauza ona izango dala iruditzen jat.




**Jose Kortaberria, 58 urte**  
**Otso-Txiki baserria (San Pedro)**

Hemen inguruan batzuk zeozertan dabizela entzun dot. Ondo dala beixintzen jata ze intermedia-rixiakin, baserri txarrantzat gaizki, merke saldu bihar dabalako eta kaletarrantzat ere, karu erosten dau eta.

**Agustín Artetxe, 59 urte**  
**Saka baserria (Lastur)**

Ondo dao ze hola kaletarrak jakingo luke nungo jenerua jaten daban eta nungua dan ona edo txarra. Hala ere, lan astuna izango da. Ondiok ere baserri txarra bajau biharko da.



**Jose Aginagalde, 56 urte**  
**Usarra baserria (Itziar)**

Zaila ikusten dot nik hori. Jendia oso komodia da eta nahixau dau ondoko dendara jutia. Basuria bajatzeko alperra dan pertsonia zela igoko da baserrira!

**GOIKOETXEA**

San Pedro auzoko azkenengo baserria da Goikoetxe. Izena bera ere seguruena horrek emana izango da. Era batera edo bestera, herritik hain urruti dagoen baserria izanik gaur egun beharrezkoa dute ez autobat, bi baizik. Gauza batzuk alde, besteak kontra. Baina batzuek eta besteak balantza batean ipini beharko balituzte, pisua baserri alderantz joango litzateke dudarik gabe.

**Baserriko askatasun eta lasaitasunik ez baitu herriak ematen.**



Gaur egun bi kotxe dituzte. Behar dutelako, horra arrazoa. Tomasek kalean egiten du lan, iturgina da. Ana Jesussek ere derrigorrezkoa du kotxea, egunero jaisten baita herrira esnea partitzera. Halere, garai batean ez zen horrela izaten, Ana Jesussek kontatu digunez, “txikixa nitzanian, astua hartu eta harekin ibiltzen ginan aurrera eta atzera, ordubete bajatzen eta ordu t’erdi igotzen. Gurian kotxerik ez zauan”. Gainera, “egixa da oingo bidia oso gaizki daula, bada ordua konpontzeko. Baina, nere gurasuen epokan biderik ere ez zauan, basuan gora eta behera ibili bihar izaten zian, arbola eta sastraken artian, astua hartuta!”.

### **10 urterekin lehen aldiz kalera**

Gaur egun edozein momentutan igo gaitezke San Pedrorra. Distantziak asko gutxitu dira. Halere, Ana Jesus 10 urte zituela jaitsi zen lehen aldiz kalera, “ordura arte eskolia auzuan bertan ematen ziguten, auzoko eskolan. 12 neska-mutil ginan maistra batekin”. Jolasak eta lagunak auzokoak izan ohi ziren, “eta gurian nes-

**GOIKOETXEA**

- **AUZOA:** San Pedro.
- **BIZILAGUNAK:** Jose Domingo Arrillaga Arrillaga, 74 urte; Florentina Azpiri Arizmendiarieta, 71 urte; Ignacio Arrillaga Arrillaga, 62 urte; Tomas Albizu Arriola, 44 urte; Ana Jesus Arrillaga Azpiri, 38 urte; Antxon Albizu Arrillaga, 11 urte eta Imanol Albizu Arrillaga, 8 urte.
- **ANIMALIAK:** behiak, untxiak, oiloak, bi zaldi...
- **PRODUKTUAK:** etxerako barazkiak eta esnea.

**Bi ZALDI**

Astoarekin jaisten zen gaztetan Ana Jesus Goikoetxetik kalera. Orain astorik ez, baina haien orde pare bat zaldi dute. Esan digutenez, “larriak eta basuak garbitzeko oso onak dia. Guk terreno asko aldapan dakagu eta makiniakin ibiltzia peligrasua da. Zaldixekin hobe”. Zaldi ganean ibiltzen ez dakite, momentuz lanera bakarrik erabiltzen dituzte baina... batek daki!

ka gitxi ginanez, gehixo ibiltzen ginan mutilen jolasetan”. Bi seme dituzte, Antxon eta Imanol. Oraindik mutiko gazteak dira baina baserri munduan gustura daudela aitortu digu haien amak.

**Dendarik ez**

Aurrerapen asko izan da, baita baserri munduan ere, eta hori franko igarri da, “nik ez dakat kalako bizitzan inbixarrik. Oin adelanto guztiak dakagu gurian ere. Batetik lana arindu daben makinak daude, bestetik kotxia dakagu kalera bajatzeko, telefonua ere etxian bertan, edozein larrialdi dauanian deitzeko... Etxe berri mordo bat eitzen ai dia darian, baserriak baino txaletak diazenak. Maiatza da hil txarra, lan asko dao eta. Ostantzian, urte osuan puntua hartuta dakagu. Ezin kanpora egun batzuk pasatzera jun baina inbixarrik ere ez”. Hori bai, zerbait faltan botatzekoan, “dendak inguruan ez egotia esango neuke, bastante aparte daude. Ondoko baserrietara jotzen dou zeozer falta jakunian. Ostantzian, tabernak sobran daoz: Aubixakua, San Pedrokua eta Herri Gain”.



# Asier Rubio:

## "Baserri bat alkilau eta gustura biziko nitzan"

20 urte ditu Asier Rubiok. Orain dela bost, Ikastola utzi eta zerbait ikasi behar zuela eta, argi zuen makinei buruzko guztiak ez zirela berarentzat eginak. Asierri natura, mendia eta baserri mundua gustatu izan zaio beti. Horrela bada, Zizurkilera joan zen, Fraisoro eskolara, nekazaritza ikasketak burutzera.

- Kaleko ume batek baserrira jotzea ez da normalena.

- Ez, egixa da, baina neri beti gustatu izan jata baserri mundua. Gainera, argi nakan ez nabala makina konturik jakin nahi eta Zizurkilko eskola horren berri euki nabarian hara jutia erabaki naban.

- Nahiago ardiekin mendian, 8 ordu tailerrean baino.

- Dudaripe. Egixa da kalia askoz libertade gehixo dakazula, nahi dozunian batera edo bestera jua eta behin lana amaituz gero libre dakazu, baina neretzat konpentsazio gehixo dakaz mendixak.

- Esaterako?

- Beste gauza batzuen artian, baserrixan ez dakazu jefe bat zure gainian. Norberak antolatzen dau lana eta egun batian asko eitzen ez badozu ere, hurrenguan gehixo estutu eta kitxo.

- Arantzatzun zaude

orain, ez?

- Bai, bertako baserri batian, Urtiagain-en. Ardiak dazkabe eta horiez arduratzen naiz ni. Beste edozein ikasketak egin eta gero bezela, hemen ere, gauza bat teorixia da eta beste bat praktikia. Beste ezertan hasi aurretik, baserrixa eta ganaua zela gobernatzen dan ikasi nahi dot.

- Zein da zure zeregina?

- Goizeko 8etan jaikitzen naiz, ardiak jetsi, jaten emon, gaztietan zeozer lagundu, beste ganaua gobernau, bazkaldu, piskat trankil egon, ardiak kanpora etara, jaten eman berriz...

- Eskuz jeisten dituzue?

- Bai, makinarik ez dakagu. Oin ez da lehen bezela eitzen, ardiak gu baino altutuo ipintzen dia baina, hala ere, bastante mobitzen dia.

- Zenbat ardi guztira?

- 330 inguru. Dana dala, danetaz ez naiz ni arduratzen. Bost lotetan



banatuta daude eta nik lote bat dakat. Horiek ezagutzen ditxut. Kanpotik berdinak ematen badabe ere, bakoitzak berezitasun bat daka, adarra dala, ilia dala...

- Kalea utzi eta baserrira joateko prest?

- Bai, baserriren bat alkilau, artalde bat erosi eta gustura biziko nitzake, Nafarrua aldian edo.

- Nahiz eta oporrik ez izan?

- Bueno hori ez da hola. Ardiarekin esan laike sei hilabete inguru lanian a tope zabizela eta gero asko trankiltzen dala.

- Eta posible al da baserri bizi?

- Bai, ez dozu gerente baten soldatia eukiko ez eta kriston oporrak ere, baina bizitzia posible da. Beste bizitza bat da eta beste satisfazio batzuk ditxu. Gainera gaur egun ez da lehen bezela. Oin baserrixa eta kalia lehen baino askoz gertuo daude, bidiak daude, kotxiak, lanerako aurrerakuntzak... Ez da hain apartauta geratzen.

- Kaleko zerbait botako duzu faltan, ez?

- Batzutan bai. Lanian izerdi batian nabilenian kafia hartzen egongo dian lagunez akorda-tzen naiz, baina...

**TXURI BELTZ**

Taberna

San Franzisko 38

★ IDAZMAKINEN SALMENTA  
ETA KONPONKETA  
★ MULTIKOPISTAK  
★ FOTOKOPIADORAK  
★ PLANOEN BIRREGILEAK  
★ ERLOJU INDUSTRIALAK  
★ MARRAZKETA MATERIALA  
★ INFORMATIKA  
★ FAX

Errosario 30  
Tel: 74 02 84 - ELGOIBAR

GEHIGARRI HONETAKO KOLABORATZAILEAK: Asier Albizu, Agustín Irujo eta Iñaki Oñederra.

## Fermin Vazquez

### Pintorea



● **Zure bizitzako zein unek izan du kolore beltza?**

▶ 1980ko urtarrilaren 14ak, errekarera erori nintzen furgonetarekin.

● **Eta bizipen arrosa bat?**

▶ Semearen jaiotza.

● **Etorkizuna berdea al da?**

▶ Bai, optimista izan behar da.

● **Nori emango zenioke brotxazo**

**bat?** ▶ Inori ere ez, ez naiz arrenkuratsua.

● **Elgoibarko kaleei zein kolore emango zenieke?**

▶ Berdea, pake eta itxaropen ikutua emateko.

● **Zein osagai izango lituzke zure bizitzaren paletak?**

▶ Osasuna, maitasuna eta pakea.

● **Noren irudiaren koadroa zintzilikatuko zenuke etxean?**

▶ Nire amarena.

● **Zer desagertaraziko zenuke aguarras fuerte batekin?** ▶ Inbidia.

● **Zeri emango zenioke barniza disdira gehiago izan lezan?**

▶ Maitasunari.

● **Zure irudiaren zati bat aukeratu marrazki bat egiteko.**

▶ Gorputz osoko marrazki bat egingo nuke.

● **Zein kolore emango zenieke zure begiei?**

▶ Ez nituzke aldatuko.

● **Zure izaeratik zer leunduko zenuke lija batez?**

▶ Jenioa, nahiko txarra daukat eta.

● **Denak al dauka prezio bat?** ▶ Bai, denak eta denek.

● **Zein da zure birtuterik handiena?** ▶ Konprentzioa.

● **Eta besteengan onartzen ez duzuna?** ▶ Inbidia.

● **Beste bizitza batean zer izan zinela uste duzu?**

▶ El Cid Campeador, oso borrokalaria naiz eta.

● **Eta berriz jaioko bazina zer izan nahi zenuke?** ▶ Trueno kapitaina.

● **Elgoibarko zein txoko ezkutatuko zenioke kanpotar bati?**

▶ Dena erakutsiko nioke.

● **Asteke egunik onena? Eta txarreana?**

▶ Igandea onena eta astelehena txarreana.

● **Poloan bezala 6 hilabete gau eta beste 6 egun izango balitz**

**hemen?** ▶ Ohitu egin beharko!

● **Botatzeko asmorik?** ▶ Bai.

## MARTXOAK 3

### DOINUA:

Nafarroako mendi goietan

“Desmoscopia” “Eco consulting”

“Sigma dos” ta “Box publica”

sondeo enpresak aspalditikan

lanean daude hasita

sistema denak dira berdinak

emaitza ez da errepika

denok dakigu nolakoa den

zoritzarrez politika (Bis)

Hainbeste jende bada botoa

erabaki ezinean

ez dizuegu ezer esango

ez ezker ez eskuinean

ongi pentsatu zer nahi duzuen

denbora den bitartean

larunbatean hausnartu eta

botatzera igandean

### BERTSO ESKOLA



### I. URTEURRENA

1995eko otsailaren 27an hil zen **ESTHER IRURETA**  
**AGIRREGOMEZKORTA**ren oroimenez *urtemeza* izango da  
larunbatean, **martxoak 2**, arratsaldeko 7etan Parrokian.  
*Joango zaretenoi alde zurretik mila esker.*



## Mendi trabesia eta eskia

Satrustegin hasi eta Beriain-San Donatoraino mendi trabesia antolatu du Morkaikok martxoaren 10erako. Irteera goizeko 7,30etan izango da Foruen Enparantzatik. Bestalde, martxoaren 16 eta 17an Belagoara joko dute Ipar Eskia egiteko asmoz. Batean zein bestean izena emateko Mendi Elkartera jo edo 740297 telefono zenbakira deitu.

## Elgoibarko Izarraren Batzar Orokorra ostegunean

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak urteko batzar orokorra egingo du hilaren 7an, osteguna. Gai ordenari dagokionez, 95eko memoria eta 96ko asmoak eta aurrekontua aztertuko dira, bai eta zuzendaritza batzorde berriaren aurkezpena egin ere. Batzarra arratsaldeko 7etan izango da Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## Mintxetarako kontzesioak

Udal Patronatuak junta erretoran astelehenean onartutakoaren arabera, garbitasun zerbitzuaren eta mantenu eta lorazaintza zerbitzuaren kontratazioa lehiaketa publikora ateratzea erabaki zuen. Bi kontzesio hauez aparte, kafetegirako kontratazioa ere lehiaketan ateratzea onartu zen. Azken honetan gutxienezko euskaren jakintza eskatuko da baina beste bietan ez. Kantratazioak autonomo moduan egingo dira eta mantenu eta lorazaintza zerbitzua eta garbiketa zerbitzuetan 1.116.000 pta. ordainduko ditu Udalak. Kafetegiaren kasuan, ordaindu beharreko gutxienezko errenta 90.000 pta. izango da hileko. Kontzesioa eskaintzarik onenari emango zaio. Oinarriak Kirol Patronatuak Kultur Etxean duen bulegoan jaso daitezke. Eskerak aurkezteko azken eguna martxoaren 18a izango da.



**Santa Klara auzora** gasa eramateko obrak direla eta, aste osoan zehar Txankakua zubirako pasoa itxita egon da ibilgailuentzat. Hortaz, Errosario kaletik gora datozen ibilgailuentzat Plaza Handi erdi-erditik pasatuz, Santa Ana kalerako bidea markatu zuten Udaltzaingoa pibote batzuen bidez. 634 errepide nazionalen lurra zulatzen jardun zuten bitartean karril bat itxi behar izan zuten baina gainontzean bi norabideak egon ziren zabalik.





**Elgoibarko EAJ/PNV** alderdiko Kongresurako hautagaiak Elgoibarko Pedro Muguruzako Batzokian izan ziren joan den ostiralean, alderdikideei programaren berri emateko antolatu zen ekitaldian. Lagun arteko afari baten bueltan programaren punturik garrantzitsuenak aipatu zituzten hautagaiak eta ondoren alderdikideek galderak egiteko aukera izan zuten. Argazkian, aurkezten diren hautagaietatik lau: Castor Garate, Isaac Loiola, J.J. González Chavarri eta J.M. Ollora.

**Kk g**  
**ILEAPAINDEGIA**  
☎ 74 00 69  
San Frantzisko, 40 3 - B

**Mandiola S.L. Egurrak**  
Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA  
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42





## Santi Spiritus eta Arriagako Andra Mari Pietatea eliza

- Garai batean San Antolin elizaz ezagutu zena, Arriaga edo San Antolin (santuaren izenak auzoaren izenari aurrea hartu zion) auzoan kokatua zegoen.
- Autopistako sarrerak eta industri-gunea egiteko 1973. urtean bota egin zen. Bere kokapena egungo 634 errepidetik industri-poligonora doan bidegurutzetik Azkoitiko errepide berriraino, eta trenbidetik ia Deba ibairaino hedatzen zen plaza erromantikoa zegoen. Gertu zegoen, baita ere, ospitalea.
- Karkizano dorretzeko semea zen Joan Martinezek fundatu zituen eliza eta ospitalea. Badi-rudi, XV. mendearen bukaeran eraiki zirela biak. Testamentuan adierazten zuen hauek eraikitze-ko asmoa, "Jainkoari eskainitako kultura eman dadin bertan... eta pobreek eta beste edozeinek mezak eta elizkizunak entzun ditzaten".
- Eliza, harlangaitzez eraikia zegoen nahiz eta eskantzuetan

eta sarreran harlandua erabili zen. Hormek eta kontrahorma sendoek aurreko aldean itxi eta eusten zuten lauki zuzeneko eliza.

- Ezker aldeko fatxadan hiru leiho dinteldu zeuden hormaren goi partean. Buru aldean abside angelu zuzena zuen.
- Atzeko fatxadatik eliz ataria irteten zen, kararizko pieza bakarrek bi koloma toskaniarrez eutsita zegoelarik.
- Hormaren kontra eta elizako atearen alboetan harrizko jarleku bana eta eskubian ur bedeinkatuaren ontzia zeuden. Erreja torneatu batez itxita zegoen baogune dinteldu baten bidez sartzen zen elizara.
- Oin aldeko teilatuaren ertzean, kanpai bakarra zegoen gaur egun Altzolako Torrekoan dagoelarik gordeta, pulpituarekin batera.
- Kanpaia teilatu txiki batez zegoen babestuta eta ganean burdinezko gurutze bat zuen.

PELLO ARRIETA



## Pedro Urain Arrasate (1902-1983)



- Mendaroko Alkorta baserrian jaio zen 1902ko martxoaren 31n.
- 19 urterekin txarri tratuan hasi zen, sendiaren tradizioari eutsiz.
- Feriaz feria tratua egin ondoren, baserrietara banatzen zituen txerriak, sarritan egun asko etxetik kanpo egiten zuelarik. Hasieran oinez egiten zuten, aita batez ere, eta gero furgoneta erosi zuen Pedrok, Fiat bat, eta ondoren Chevrolet bat, SS-6000 matrikuladuna.
- Aitarekin txarritan ibiltzen zenean, Butrongoan egoten ziren apopilo. Fermi-na Arakistainekin ezkondu eta 1949an Txarriduna ostatua eta jatetxea ireki zuten. Izenarekin dudan bazeuden ere, azkenean "Txarriduna" jartzea erabaki zuten, hartantxe baitzen Pedro ezaguna.
- Urte askotan "Gran txarriboda" izenez iragartzen zen txerri hilketa urritik maiatzera bitartean egiten zuten. Ohitura zuten lehenengo txerribodan, jatetxera sartzen zen guztiari odolostea eta gibela debalde emateko. Mataderoa Oñatira eraman arte mantendu zuten ohitura.
- Hil baino bi hilabete lehenago arte izan zituen Pedrok karneta eta Chevrolet-a.
- 1983an hil zen 81 urterekin.

San Franzisko 12-14, Tel. 74 05 49

*Arrieta*  
modak

San Bartolome 18  
☎ 74 08 49

*Eskulanean  
saiazen gara*  
Pastelak  
Tartak  
Izozkiak  
Bonboiak

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

## MOTZAK

### Atletismoko emaitzak

Mintxeta Taldekoak Legazpian izan ziren igandean Gipuzkoako Txapelketarako baliagarria zen lasterketan. Alebin nesken mailan Ana Etxaniz bederatzigarren postuan sailkatu zen eta Alaitz Merino hamaikagarrean. Mutilen lasterketan Unai Etxeberriak bakarrik hartu zuen parte Elgoibartik eta 14. lekuan sailkatu. Infantilen kategorian San Bartolome Ikastolako neskak Euskadiko txapelketarako sailkatu ziren. Mutilen lasterketan Angel Quintana 18. lekuan sailkatu zen. Kedeteetan Gorka Sanchez 2.a geratu zen eta martxoan Espainiako txapelketan parte hartuko du.

### Eskolarteko Igeriketa

Eibarko igerilekuan izan zen txapelketan parte hartu zuten Olaizagako bederatzia igerilariek lortu zuten marka pertsonala hobetzea. 50 m. bularrean Iñigo Canales, Iker Astigarraga, Andoni Schmidt, Asier Ajuriagerra, Josu Aizpuru eta Miren Esnaola aritu ziren eta 100 m. bularrean Julen Arrillaga, Iñigo Otero eta Aingeu Osoro. Julen Arrillagak 10 segundo eta 30 hamarrekotan jaitsi zuen marka, Iker Astigarragak 5 segundo eta 23 hamarrekotan eta Andoni Schmidt-ek 4 segundo eta 56 hamarrekotan.

### Muskulazio gelaren irekiera

Astelehenean, hilak 4, irekiko ditu berriz atea Mintxetako muskulazio gelak. Prezioak honako hauek izango dira: langabetu, ikasle eta unibertsitariak 1.900 pta., kiroldegiko bazkidek 2.100, elgoibartarrek 2.500 eta kanpotarrek 3.800 pta.



Inaxio Kortaberria:

## "Boluetaarako afiziñua galtzen ari da"

■ **Zure tamainako txapela aurten goa.** - Haundi xamarra, burua errez tapatzeko modukua. Aurten itxuria ez dakit zer pasau dan. Zahar batek ateratzeko, zaharrentzako txapelketia izango da.

■ **Beteranutzak gaztetasunari aurrea hartuko zion.** - Zahartzaruan esperientzia eukitzen dou baina sasoi hobia lehen. Gaztien artian ez dao lehengo zaletasunik, behera ein dau boluak, galtzen ari da afiziñua.

■ **Estu ibili zinen irabazteko?**

- Lehenengo bi bolatokixetan aurretik nauan. San Lorentzon fallau ein naban. Bigarrenakin parrian nauan baina azkenengo bolatokixan bost jo nitxuan eta bestiak gutxio.

■ **Txikitatik datorkizu zaletasuna?** - Txiki-txikitatik. Oin atzenengo urtietan gitxio nabil, badakizu edadian aurrera nixe...


■ **Gipuzkoako txapelduna izandakoa ere bazara.** - Behin izan nitzan; ez naiz akordatzen noiz. Beste behin bigarren izan nitzan.

■ **Aurten parte hartuko duzu?**

- Asmua badakat baina ikusi ein bihar. Oin ez dakat lehengo sasoi ta...

■ **Bolatoki batetik bestera, alderik?**

- Bai. Bolatoki bakoi-tzak bere kostunbriak dazka, batzuetan fuertiao eta



bestietan suabio. Bolatoki batzuk indarrekuak dia, San Migel eta San Pedro, eta San Lorentzo eta San Roke indar gutxiuak. Nik indarrekuak nahixao, beti horretan ibili izan gera eta.

■ **Boloak botatzeko moduan ezberdintasunak daude, ez?**

- Bolatokixak diferentia diaz eta bolak ere bai. Horregatik esperientzixa euki biozu azpijana eta gainajana esaten jakona eitxeko, bolia alde batera edo bestera okertu. Bida estua izaten danez, erditxik komeni da ibiltzia.

■ **Punteria?** - Suertia esango neuke nik. Batzuetan bolia sartzen dozu eta bi botatzen ditxuzu eta suerte txarra euki ezkeru igual bakarra botatzen dozu. Gertau jatan kapeonato batian batek bola gutxio sartu eta txirlo gehixo jotzia.

■ **Apostuzalea?**

- Jokau zeozer bai baina gitxi. Jokua eitxen dan bolatoki gitxi dao, kontautakuak dia.

■ **Datorren urtean berriz Elgoibarko txapeldun?** - Urte bat gehixo ere eukiko dou eta... zaila.

• Adina: 55  
 • Herri kiroletan gogokoena? Pelotia eta harrijasotzia  
 • Ehiza ala boloak? Bixak ditxut oso maitxe  
 • Ezkerrarekin ala eskumarekin? Eskubixa ibiltzen dot

MARTXOAREN 3an igandea

hautestontziak independentziaz leporaino

BOZKATU HERRI

# Sanpedrotarrak taldeka, eta Inaxio Kortaberria banaka nagusitu ziren Elgoibarko II. Bolo Txapelketan

**O**tsailaren 24an, larunbata, jokatu zen Elgoibarko II. Bolo Txapelketako azken tiraldia. Lau tiraldik osatu dute txapelketa, lehena San Roken, bigarrena San Migelen, hirugarrena San Lorentzon eta azkena San Roken. Azken jokaldira arte ez zen erabaki nortzuk irabaziko zuten txapelketa.

San Pedroko taldeak 13 txirlo jo zituzten larunbatean. San Rokeko tiraldira arte sanmigeldarrak aurretik zihoazen txirlo baten aldearekin, baina finalean San Migel auzokoek huts egin zuten, bost txirlo baino ez baitzituzten jo. 13 txirloei esker, zazpiko aldeaz irabazi zuten Sanpedrotarrak, bigarren San Migeleko taldea geratuz.

Banakako kategorian lehen egunetik aurrea hartu zien Inaxio

Kortaberriak lehiakide guztiei. Azken tiraldian txirlo bateko aldeaz zeukan Inaxiok bigarren sailkatuarekiko eta bi txirlo hirugarrenarekiko. Finalean 20 txirloekin txapela eskuratu zuen Inaxiok, honen atzetik Jesus Mari Azpiazu geratu zen 16 txirloekin eta atzetik, Iker Izagirre 14ekin. Inaxio Kortaberriak Gipuzkoako txapeldun izan zeneko maila mantentzen duela argi geratu zen. Aipagarria bestetik, San Roke B taldeak, gaztez osaturikoak, maila ona erakutsi zuela txapelketan zehar.



## SAILKAPENA

### ● TALDEKA

San Pedro . . . . .53 txirlo  
 San Migel . . . . .46 txirlo  
 San Roke B . . . . .40 txirlo  
 San Lorentzo B . . . .36 txirlo  
 San Roke A . . . . .32 txirlo

### ● BANAKA:

Inaxio Kortaberria . . .20 txirlo  
 Jesus M. Azpiazu . . .16 txirlo  
 Iker Izagirre . . . . .14 txirlo  
 Asterio Pérez . . . . .11 txirlo  
 Joseba Iriondo . . . . .11 txirlo



Goian, San Pedroko talde txapelduna. Lerro hauen gainean, Iñaki Kortaberria Iñaki Oñederraren eskutik saria jasotzen.

# KiROL

## EMAITZAK

### Futbola

Haundi 1 - Vasconia 2  
 Gure Txokoa 0 - Elgoibar 0 (1. erreg.)  
 Elgoibar 2 - S. T. Lizeoa 3 (Jubenilak)  
 R. Sociedad 4 - Elgoibar 0 (Kadeteak)  
 Koxkak 0 - Elgoibar 2 (Infantilak)

### Saskibaloia

Txankakua Saskibaloi T. 47 - Arruti 27

### Futbitoa

Kosakos 3 - Rebel Urbi 4  
 Sanroketarra 6 - Aldavas 2  
 Uda Berri 1 - Ametsa 1  
 Ikus Optika 3 - Roke 4

### Areto Futbola

Sidreria Araeta 1 - Elgoibar F.S. 1  
 (1. maila)  
 Pub Cisne 1 - Elgoibar F.S. 2  
 (2. maila)

## AGENDA

### Futbola, Mintxetan

**Larunbata, 2**  
**12,00** Elgoibar - Hondarribi (neskak)  
**16,30** Elgoibar - Trintxerpe (1. erreg.)  
**18,15** Urki B - Aretxabaleta (Jubenilak)  
**Igandea, 3**  
**10,00** Eibar Urko - Loiola Indautxu (Jubenilak)  
**12,00** Elgoibar - Antiguoko (infantilak)  
**13,30** Gazteak - Antzuola (2. erreg.)  
**16,30** Elgoibar - Lehenengokoak (Kadeteak)  
**18, 15** Beti Sutan - Lasarte (2. erreg.)

### Pilota, Ikastolako frontoian


**Deba Arroko Txapelketa**  
**Ostirala, 1**  
**22,00 HAURRAK:**  
 Orbea II/Arrillaga (Lagunak) - Izagirre/Berga (Deba)  
**GAZTEAK:**  
 K. León/Balzola (Lagunak) - Izagirre/Udabe (Deba)  
**NAGUSIAK:**  
 Ansola/Alzibar (Lagunak) - Mendizabal/Lizaso (Deba)



## Birziklatutako altzari margotuak Kultur Etxean ikusgai martxoaren 7ra arte

**B**igarren eskuko altzariak dira denak, zakarrontziatik hartutakoak. Itxuraz, modaz pasatutakoak edo sitsak jaten hasitakoak, jendeak etxetik kendutakoak. Birziklaiaren garrantziaz kontziente, 13 ikasle-ozatutako taldearen eskuetatik pasa ondoren, eraberritutako objektu bihurtzen dira. Dekorazio aldizkarietan ager-tzen diren margoketa teknika berriekin apainduriko aulki, mahai, ohe, etab. ikusteko aukera izango da Kultur Etxean gaurtik, hilak hasita, datorren ostegunera arte, hilak 7.

Lanbide Heziketa Institutuak antolatutako eta Lan Sailak



subentzionatutako ikastaroa burutu duten 13 lagunek egindako eskulanaren eta imajinazioaren fruitu dira Kultur Etxeko erakusgelan dauden altzariak.

Zakarrontzitik berreskuratutako objektu garbitu, konponketarik behar badu konpondu, lijatu, pintatu edo tintatu, estarzituen bidez edo eskuz marrazkiak egin... metalezko, plastikozko edo egurrezko altzariak, denak dira balekoak birziklatzeko orduan. Dekorazioa gustuko duenak badu zer ikusi aste honetan zehar Kultur Etxean. Bisita orduak: arratsaldeko 7etatik 9ak arte astegun eta larunbatean eta 12etatik 2etara igandean.



## Elgoibarko Udal Kirol Patronatua

### MINTXETAKO UDAL INSTALAZIOKO ZERBITZUEN SUBKONTRATAZIORAKO

#### MANTENUA eta LORAZAINTZA

##### ESKAINTZEN DA:

- Egun erdiko lana
- 1.115.758 pta.

#### KAFETEGIA

##### ESKATZEN DA:

- Euskara jakitea
  - Gutxieneko errenta 90.000 pta. hileko.
- (Eskaintza onenari emango zaio)

#### INSTALAZIOEN GARBIKETA

##### ESKAINTZEN DA:

- Egun erdiko lana
- 1.116.900 pta.

OINARRIAK Udal Kirol Patronatuan jaso daitezke (Kultur Etxean, goizez).

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA martxoaren 18an amaitzen da.

## Tanttaka taldearen *Denak Errudun* lana Emakumearen Egunerako

Tanttakaren "Denak Errudun" lana ikusi ahal izango da martxoaren 8an, Emakume Langilearen Nazioarteko egunean, gaueko 22,00etan Herriko Antzokian. Helduei zuzenduriko lan honek ordubate inguruko iraupena du eta ama izateari buruzko hausnarpena da.

**L**au antzezlek amatasun arduratsuari buruzko gogoeta arina eta ironikoa egiten dute euskarazko bertsoian. Lau emakumeren azterketa da, haien pausoak, dudamuda eta zalantzak, beldurak, ardurak, nekeak, ilusioak... denak haurdunaldian edo lehenago hasitakoak. Lau protagonista

nistak emakumezkoak dira, ama izan nahi dute, haien betebeharrak antolatatu behar dituzte, ezin diote amaginarrebari kasurik egin. Lan egiteari utzi nahi ez dioten emakumeak dira umearen kargua bete-bete hartzeko.

Tanttaka 1983an osatu zen. Orain arte 14 produkzio ezberdin buru-



Ama izateari buruzko lana da "Denak Errudun".

tu dituzte. Aipagarrienak "Agur Eire, Agur...", "Flaminio", "Adagio Violentissimo", "Zilbor hes-tea", "Kontuz maite zaitut" eta "Hansel eta Gretel bezala" dira. Antzezleak Teresa Calo, Amaia Cuende, Mireia Gabilondo eta Garbiñe Losada

dira eta Pere Sagristá da zuzendaria.

Bestetik, martxoaren 8an Emakumearen Eguna dela eta, zine emanaldi berezia egongo da asteartean, hilak 5, gaueko 10etan: "Nadie se acordará de nosotras cuando hayamos muerto".



Migel Angel Canales  
San Frantzisko 42 - Tel. 74 28 64

**Derrigorrezko aseguru**  
Borondatezko aseguru  
**mugagabea**

**Kalteen defentsa eta**  
**erreklamazioak**

Bidaia asistentzia

**Bidaiarien aseguru:**  
**Gidaria**

*Zatoz eta ezin kontsulta*  
*konpromezurik gabe!*

## "A terceros" aseguru 2 urteko gidabaimena duten 27 urteko gidarientzat

	BONIFIKAZIORIK GABE	BONIFIKAZIOAREKIN
SEAT STREET 3P FORD FIESTA CHEERS 1.1 5P CITROEN AX 1.4 RD	46.599	<b>37.809</b>
OPEL KADETT L.S. 1.4 VOLKSWAGEN VENTO CL RENAULT CLIO MECANO	50.529	<b>40.897</b>
RENAULT 19 TSE CHAMADE FORD MONDEO CLX 1.8 PEUGEOT 306 XT 1.8 CAT 5P	58.030	<b>46.791</b>
PEUGEOT 605 SV 3.0 AUDI A6 2.3 HYUNDAI SONATA 2.0I GLS 16V FULLS E	64.970	<b>52.244</b>

**"Arrisku osoko" aseguru nahi baduzu eskatu informazioa.**  
**"GIPUZKOA PREMIER"ek ez du parekorik.**

# Xabier Izagirre:

## "Fans historikoen mitoarekin apurtu bihar da"

Fan hitza entzuten edo irakurtzen dugun guztietan, Beatles-en garaiko neska historiko batzuk etortzen zaizkigu burura, edo gaur egun Alejandro Sanz ikuste hutsarekin zorabiatzen direnak. Halere, fan izateak ez du halabeharrez aurrekoa esan nahi. Badira, izan, talde edo pertsona konkritu bat gustatu eta haien jarraitzaileak direnak, inolako fanatismoarik gabe. Xabi Izagirre horietariko bat da.

**- Bruce Springsteen-en zalea zara.**

- Bai, baina ni Bruce-en fan-a baino, musikaren fan kontsideratzen naiz. Musika bere osotasunian gustatzen jata, danera nao irikita, bakalao-ra izan ezik. Fan batzuk oso itxixak izaten dia eta gustatzen jakuena bakarrik entzuten dabe. Nere kasua ez da hori eta ni bezelako asko daude, fan historikoen mitoarekin apurtu egin bihar da.

**- Musika zer da zuretzat, beraz?**

- Bizitzan biharrezkua dan zezer. Bizitzan

sonoria da musikia. Momentu bakoitzak bere musika daka, oroitzapen asko daude musikian inguruan... Musika kontsumitzaile bat naiz, ezin dot imajinatu egun bat musika-rik gabe.

**- Noiztik Bruce-en jarraitzaile?**


- 84an kriston arrakastia euki zaban eta danian azaltzen zan. Nik epoka hartan ez nakan musika ekipua baina gero, erosi nabani, diskuak laga zian lagun batek, ni ere erosten hasi nitzan... Letrak irakurtzen hasi nitzanian, oso identifikauta sentidu nitzan. Eta oin arte.

**- Noiztik bere talde batean?**

- 88an jakin naban Ingalaterran zauala Bruce-en jarraitzaileen talde bat. Hiru urte egon nitzan han eta gero Bartzelonan beste bat zauala jakin naban, *The Stone Pony*. Bartzelonako taldian nago oin.

**- Zein dira abantailak?**

-- Urtian hiru bat aldizkari bidaltzen dizkizue Bruce-ri buruzkoak. Horrez gain, berari buruzko informazioa eta publikatu gabeko konpaktuak ere eskuratu ahal izan ditxut. Gehien gustatzen jatazen abestixak



publikatu gabekuak dia. Horrez gain, iaz Donostian jai antzeko bat antolatu zan. Jendia ezagutzeko aukeria da eta materiala lortzeko era bat.

**- Zenbat aldiz egon zara Bruce-en kontzertuetan?**

- Bi aldiz, Madrilen eta Gijonen.

**- Egin duzu astakeriarik?**

- Astakeriarik ez dot egin eta ez nuke egingo gainera. Hori bai, 17 urte nitxuanian, nahiz eta etxian ez zien lagatzen, Madrileko kontzerturako sarrerria erosi naban eta hara jun nitzan bakarrik, autobusian.

**- Bruce ezagutzea nahi zenuke?**

- Klaro baietz baina ez nuke astakeriarik egingo horretarako.

**- Madrilen izango den kontzertura joateko asmorik?**

- Asmua eta gogua bai baina zaila izango da ze teatro txikixetan jo bihar dau eta sarrerak lortzia oso zaila izango da.

**- Zein beste kontzertu ikusi nahi zenuke?**

- Neil Young-ena.



banda

## Garajeak

Garaje itxi bat saltzen da Arregitorren.  
☎ 74 30 81

Lokal bat alokatzen dut Madalan, almazenerako aproposa.  
☎ 74 13 84

Garaje itxi bat ALOKATZEN dut pista beltzean.  
☎ 74 20 09 (gauez)

Garaje ITXI BAT salgai Santa Ana 46an.  
☎ 58 40 24

Garaje bat ALOKATZEN dut pista beltz azpian. Marraduna eta kotxea garbitzeko aukera.  
☎ 74 01 77

## Etxebizitzak

Bi rakasle gara eta pisu bat alokatu nahi dugu.  
☎ 10 85 44 Patxi (goizez 9-13)

Elgoibarren edo inguruan PISU BAT ALOKATU edo konpartituko nuke. Iosune.  
☎ 74 41 32 (egunez)  
☎ 59 21 36 (8etatik aurrera)

Etxe bat salgai MENDARON. Amueblatuta.  
☎ 75 62 62 (gauez 9-11)

ALTZOLAN BUHARDILA BAT alokatzen dut. Hornituta eta baldintza onean. ☎ 74 37 41

## Salerosketak

ESKIAK (1,85) eta eskiatzeko BOTAK (42) salgai. Egoera onean.  
☎ 74 18 55 (gauean)

Ford Escort XR3, 16 v, SS AN kotxea saltzen dut.  
☎ 74 34 63 Xabi (gauez)

Errepideko bizikleta salgai. CONTINI markakoa. Shimano 105 STI Mavic. 100.000 pta. Oso ondo dago.  
☎ 74 26 49

ERREPIDEKO BIZIKLETA salgai. Egoera oso onean eta prezio interesgarria.  
☎ 74 28 56

## Lana

GARBIKETA lanak egiten ditut, orokorrak, leihoak eta obra bukaerako garbiketak.  
☎ 74 39 63 Alicia

ETXEKO LANAK egiteko prest nago.  
☎ 74 34 06

## Agurrak

ZORIONAK ION zure zortzigarren bisiestoan. Bertaraterik ez daukagunez hemendik egiten dizugu belarrietatik (9x8) 72 aldiz tira. Etxekoak.

Berandu xamar bada ere ZORIONAK Mari Tere!. Datorren urterako bi telefono linea ipini beharko dituz.

Otsailaren 28an 12 urte egin zituen Loinaz Polori Zorionak eta musu handi bat bere familiaren partez.

Gure etxeko MARTXOSIENARI mila kilo zorion, Bidatz, Zuhaitz, Ainhoa eta Danelen partez.

BIDATZ: Prestatu belarriak domekarako. Zuhaitz, Ainhoa eta Danel.

Hilaren 27an urteak bete zituen Amets Izagirri ZORIONAK 5. mailako lagunaren partez.

## OTSAILEAN

### Jaiotakoak

- Jon Ander Martín Marín (Otsailak 1)
- Arkaitz Oteiza Sasiain (Otsailak 7)
- Ainhoa Alberdi Arriola (Otsailak 8)
- Mikel Garate Salegi (Otsailak 18)

### Ezkondutakoak

- Adolfo Martín González eta Maria Pérez García (Otsailak 10)

### Hildakoak

- Ignacio Irizar Sodupe, 75 urte (Otsailak 1)
- Adosinda Parada Pérez, 67 urte (Otsailak 22)
- Juan Carlos Alvarez Leo, 21 urte (Otsailak 28)



## ETXEBERRIA

### Hileta zerbitzu

OSOA ETA 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak. Donostia eta probintziako eritetxe zentruetan ere bai.

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR  
Tel.: (Biltegia) 74 13 27 (Etxekoa) 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 908 77 07 01



## 1 OSTIRALA

### 19,00 BIGARREN ESKUKO ALTZARIEN ERAKUSKETA

✓ Kultur etxean  
Hilaren 7ra arte  
Antolatzailea: Lanbide Heziketa  
Institutua.

22,15 ZINEA  
"Jade"

## 2 LARUNBATA

19,30-22,15 ZINEA  
"Jade"

## 3 IGANDEA

16,30 ZINEA  
"Time master"

19,30-22,15 ZINEA  
"Jade"

## 4 ASTELEHENA

22,15 ZINEA  
"Jade"

## 5 ASTEARTEA

22,00 ZINEA  
"Nadie hablará de nosotras  
cuando hayamos muerto"  
(Emakumearen eguneko emankizun  
berezia)

## 6 ASTEAZKENA

9,00-12,00 ZINEA ETA OSASUNA  
Ertainetako ikasleentzat  
"Una historia del Bronx"  
✓ Herriko Antzokian

19,00 ZINEA ETA OSASUNA  
Ertainetako ikasleen gurasoentzat  
"Una historia del Bronx"  
✓ Herriko Antzokian

## 7 OSTEGUNA

19,00 ELGOIBARKO IZARRAREN  
BATZAR OROKORRA  
✓ Kultur Etxean

## 8 OSTIRALA

19,00 GEMMA MONREALEN  
MARGO ERAKUSKETA  
✓ Kultur Etxean  
Hilaren 24ra arte

22,15 ANTZERKIA  
Taldea: Tanttaka  
Antzezlanak: "Denak Errudun"  
✓ Herriko Antzokian  
Sarrera: 500 pta.

## txandak

### FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
1, larunbata:	Yudego	Yudego
2, igandea:	Yudego	Yudego
3, astelehena:	Yudego	Yudego
4, asteartea:	Bidasolo	Bidasolo
5, asteazkena:	Bidasolo	Bidasolo
6, osteguna:	Bidasolo	Bidasolo
7, ostirala:	Bidasolo	Bidasolo

### OKINDEGIA:

2, igandea: EIZAGIRRE

# ZineA



Jade

Zuzendaria: William Friedkin  
Antzeleak: David Caruso,  
Linda Fiorentino, Chazz  
Palminteri.

San Francisco hirian gizon  
aberats bat hiltzen dute.  
Californiako fiskalaren  
laguntzaileak Jade hitzak dituen  
objetu bat eta gobernadorea eta  
neska gazte bat agertzen diren erretratu  
konprometigarriak aurkitzen ditu. Hilketaren susmagarri nagusia  
ezkonduta dagoen emakume dirudun bat da.



### Nadie hablará de nosotras cuando hayamos muerto

Curro Romero toreatzailearentzat lan  
egiten duen banderillero bat zezenak  
harrapatu eta minusbalitua geratzen da.  
Honen emazteak, mundua behera  
datorkiola ikusita, edaten hasi eta  
Mexikora alde egiten du. Behea jo  
ondoren etxera itzultzen da,  
senarrarengana eta amaginarrebaren besoetara. Komunista eta bizitzak  
aski egurtutako emakumea da amaginarreba. Honek lagunduko dio  
errainari zulotik ateratzen. Pelikula honek 8 Goya irabazi zituen eta 2 sari  
Donostiako Zinemaldian.



Igone Martinez de Luna · Begoña Lasagabaster · Carlos Garaikoetxea · Jasone Irarragorri · Pello Yaben



### NEKAZARI KOOPERATIBA

San Frantzisko 24 • ELGOIBAR • Tel: 74 07 62  
Itziariko industrialdea E-13 • ITZIAR • Tel: 19 93 00


Garantia osoa ematen duen silo bolak egiteko  
PLASTIKO BERDEA eta neurri guztietako  
entsilatzeke PLASTIKO BELTZA.

#### BERDEA

3 palet . . . . .6.580 pta.  
palet 1 . . . . .6.848 pta.  
Ale 1 . . . . .7.062 pta.

#### BELTZA

3 palet . . . . .6.425 pta.  
palet 1 . . . . .6.693 pta.  
Ale 1 . . . . .6.907 pta.



- BAINA SAREAK
- Ereiteko haziak
  - Bainak
  - Letxuga
  - Aza
  - Perrexila
  - Azenarioa...
- Lore haziak eta bulboak



martxoaren 4tik aurrera

# ORDUTEGI BERRIA

## Irteerak ELGOIBARtik

ELGOIBAR-DONOSTIA			ELGOIBAR-GASTEIZ		
Lan egunak	Larun-batak	Jai egunak	Lan egunak	Larun-batak	Jai egunak
6,40	6,40		8,50	8,50	
7,10	7,55		18,35	18,35	18,35
8,10					
8,40	8,40				
8,55	8,55	9,40			
10,40	10,40	10,30			
13,40	13,45	13,45			
13,55	13,55				
14,40					
14,55	14,55				
15,40					
18,40	18,45	18,45	8,50	8,50	
19,55	19,55	20,00	13,05	13,05	
20,40		20,45	15,35		
			18,35	18,35	18,35
			20,05	20,05	
			21,20	21,20	21,20

## Irteerak ELGOIBARera

DONOSTIA-ELGOIBAR			GASTEIZ -ELGOIBAR		
Lan egunak	Larun-batak	Jai egunak	Lan egunak	Larun-batak	Jai egunak
7,00			7,30	7,30	9,00
8,15	8,15		12,30	12,30	
9,30			18,30	18,30	18,30
12,30	12,30	12,30			
13,30					
14,30					
15,00	15,00				
17,30	17,30	17,30			
18,00	18,00	18,00			
19,30	19,30	19,30			
20,45	20,45	20,45			

ARRASATE-ELGOIBAR (Bergara)		
Lan egunak	Larun-batak	Jai egunak
6,30	7,20	
8,20	8,20	9,50
13,20	13,20	
14,20	14,20	
19,20	19,20	19,20

**INFORMAZIOA:**  
☎ (902) 10 12 10

# CAMBRIDGE

Examinations, Certificates & Diplomas

## ENGLISH AS A FOREIGN



UNIVERSITY OF CAMBRIDGE  
LOCAL EXAMINATIONS SYNDICATE

### Informazioa eta matrikulak

ELGOIBAR:	Kensington School of English .....	74 02 36
	Key Academia de Ingles .....	74 30 44
DURANGO:	Compubit English Institute .....	94-620 20 20
ARRASATE:	Parlance .....	77 06 83
	Cim-Ahizke .....	79 01 32
BERGARA:	Espolon School of English .....	76 03 53
EIBAR:	Anglo-American .....	10 64 57
	Interidiomas .....	12 10 03
	Ukitze .....	70 25 59
	Link Idiomas .....	10 39 59
ONATE:	A & M School of English .....	71 61 37
	Cim-Ahizke .....	71 60 00
ONDARROA:	Howdy Academy .....	94-613 43 26

**MATRIKULAK:**  
martxoaren 1etik 14ra

### Azterketak eta datak

K.E.T. (Key English Test) .....	Ekainak 15
P.E.T. (Preliminary English Test) .....	Ekainak 15
F.C.E. (First Certificate English) .....	Ekainak 11
C.A.E. (Cambridge Advanced English) .....	Ekainak 13
C.P.E. (Cambridge Proficiency English) .....	Ekainak 12

TOKIA: ARMERIA ESKOLA (EIBAR)